



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

# Balentziaga, titulu ofizialik gabeko goi-joskintza

**X**àbia (Alacant), 1972ko martxoaren 24a. Cristobal Balentziaga Eizagirre jostun eta moda diseinatzaile getariarra hil zen 77 urte zituela. Erretiroa lau urte lehenago hartua zuen, 50 urtez lanean aritu ondoren eta goi-joskintzaren gainbehera betean.

Errentagarria izateari utzi arren, Balentziagak beti egin zuen goi-joskintza eta ez zen *prêt-à-porter* jardueran aritu; seriean ekoiztutako arropen salbuespen bakarra egin zuen: erretiroa hartu zuen urtean bertan, 1968an, Air Francko hegazkin zerbitzarien uniformeak diseinatu zituen.


Hil eta mende erdira, Balentziagaren ondarea Getariako museoan dago bate-tik, arazoez eta irregulartasunez inguratuta sortu zen museoan. Eta, bestetik, Balenciaga etxean, azken 20 urtetan beste diseinatzaile batzuen eskutik ospea berreskuratu duen markan. Baina Balenciaga ez dago gaur egun goi-joskintzan aritzen diren etxeen zerrenda laburrean, Balentziagak ez bezala, soilik *prêt-à-porter* egiten baitu enpresak.

Kontua da getariarra bizirik zela ere bere moda-etxea ez zela zerrenda eskusibo horretan egon, Chambre Syndicale de la Haute Couture edo Goi-joskintzako Ganbera Sindikaleko kide ez zela izan, alegia. Hasieran, ez sartzea erabaki zuen,



ez zielako elkarteko eskakizun zorrotzei men egin nahi. Aurrerago, 1950eko hamarkadan, sartzeko ahaleginak egin zituen, baina bere askatasunari eta arau propioei uko egin gabe. Ganberak bildumen aurkezpenarako egutegi zorrotza ezartzen zuen eta, 1956an, prentsa aurrean aurkezpenak nahi zituenean egiten hasi zen Cristobal, ikusgarritasuna irabazteko eta kopiak saihesteko. Ganbera zapaldu eta berehala bota zuten.

Eta, hala ere, Balentziaga eta goi-joskintza estuki loturik daude. Christian Diorrek “gu guztion maisua” zela esan zuen. Coco Chanel-ek, berriz: “Bera da jostun bakarra, hitzaren zentzurik zintzoenean; beste guztiak moda diseinatzaile hutsak gara”. Eta, azkenik, Hubert de Givenchy ikasle eta lagunak oso garbi zeuzkan, aitorten ofizialak gorabehera: “Balentziaga goi-joskintzaren sortzailea izan zen”. ●



## Willendorffeko venusa Italiatik etorri zen

Duela 30.000 urteko estatuatxo ezaguna oolita izeneko harriz egina dago. Willendorf herrian aurkitu zuten, Austriako Wachau haranean, eta inguru haietan ez dago halako oolitarik. Vienako Unibertsitateko ikerlariak mikrotomografia konputerizatua erabili dute venusaren materiala aztertzeke, eta ondorioztatu

dute harriak ziurrenik Italia iparraldean duela jatorria, Garda aintzira inguruan. Ez dakite Alpeak inguratu ote zituzten edo mendilerroa zeharkatzeko gai izan ote ziren garai hartan, baina, adituen ustez, litekeena da hainbat belaunaldi behar izatea 700 km inguruko bidea egiteko. ●